

IKASTOLAKO GURASOENTZAKO OHARRA

ABENDUAREN 2an, LAUDIOra!

EUSKARALDIAREN AMAIERA JAIA ESKUALDEKO AHOBIZI ETA BELARRIPREST GUZTIEKIN!

AIARALDEA
AHOBIZI eta BELARRIPREST!
Euskaraldiaren amaiera jaialdia

OLARTE ZUTABEA
GARDEAKO TREN GELTOKIAN
URDUÑA, AMURRIO, LUIAONDO eta GARDEAKO herritarrak

GOIENURI ZUTABEA
UGARTEKO PLAZAN
OKONDO, ARTZINIEGA, AIARA eta UGARTEKO herritarrak

LARRA ZUTABEA
LATIORROKO ZENTROEN PLAZAN
LAUDIOKO herritarrak

ARETA ZUTABEA
ARETAKO KULTURA ETXEAN
ARRANKUDIAGA ZOLLO, ARAKALDO OROZKO eta ARETAKO herritarrak

LAUDIO ABENDUAK 2 igandea

10:15 HITZORDUAK eskualdeko herrietan, Laudiora iristeko.
11:00 ZUTABE-KALEJURAK, Ahobizi eta belarriprest guztiak Herriko plazara.
11:30 ONGI ETORRIA AHOBIZI eta BELARRIPREST guztiak eta "Aiaraldeko Euskaraldiaren mezua" ahoz-ahoz, belarritz-belarri.
12:00 EKITALDI NAGUSIA, Herriko plazan.
12:30 BERBUDROMO ERRALDIA, eskualdeko ahobizi eta belarriprest guztiak.
12:30 ANIMAZIO JARDUERAK: Ekizileen azoka / Musika herriko kaleetan / Haurrentzako tailerrak, jolasak eta puzgarriak / Buruhandiak, bombongiloak eta erraldoiak / Perretxikoen dastaketa / Dantza eta abesbatza ikuskizuna / Txosna
14:00 SASKIAREN ZOZKETA
14:30 BAZKARI ERRALDIA
Prezioa: 5€ (Janaria, edaria eta postrea)
Txartelak erosteko azken eguna: Azaroak 29, osteguna

15:30 HAURENTZAKO IPUIN KONTALARIA
16:00 BARRY MANLEY, bakarrizketa umoretsua.
16:00 HAURENTZAKO TAILERRAK, jostailuak, puzgarriak.
16:30 DANTZATLOI HERRIKOIA, Eskualdeko dantza talde ezberdinek dinamizatua (euski dantzak, zumba, aroto-dantza...) eta ZIRIKI ETA MIRIKIK aurkeztua. Euskaraldiko koreografiaren oholizatzea.
17:30 DISKOTANTXA, Haurrentzako musika, dantza eta txantxa ikuskizuna
17:30 TXOKOLATEA ETA GAZTAIN ERREKA
18:00 KONTZERTUAK herriko plazan

ZE ESATEK! LEHIAN erromeria
18:00 HAURENTZAKO JOLASAK ETA TAILERRAK

URDUÑA ETA AMURRIOKO MUSIKARIEKIN
ARTZINIEGAKO BULAKA BATUKADAREKIN
LAUDIOKO TUNTURRO ZANPANTZARREKIN
LANKAJETAKO LAGUNAK TXISTULARIEKIN, TRIKITILARIEKIN...

Lehenik eta behin eskualdeko herritarrak, ikastetxeetako irakasleak, gurasoak eta haurrak ere zoriondu nahi ditugu Aiaraldean Euskaraldiak izan duen babesagatik. Milaka izan gara 11 egun hauetan gure hizkuntz-ohiturak aldatzeko ariketa kolektibo honetan izena eman dugunak, milaka ahobizi eta belarriprest, Aiaraldea euskalduntzeko ahaleginan.

AZAROAK 23-ABENDUAK 03, eta urteko gainontzeko 354 egunetan ere!

Ez da erraza ez, hizkuntz-ohiturak aldatzea; ulertzen duen horri euskaraz egitea berak erdaraz erantzun arren, ez da erraza ez euskarari eustea, belarria egitea, ahalegina egitea... Baina horixe da gure hizkuntza normalizatzeko gakoa, uste duguna baino aukera askoz gehiago baitugu euskaraz bizitzeko.

Euskaraldiak 11 egunetako ahalegina eskatzen digu, baina benetako erronka, 11 egun hauetan egindako ahaleginari gainontzeko 354 egunetan ere eustea izango da. Gure borondatea baino ez da horretarako behar, "Euskaraldia"ren olatua urte guztian zehar luzatu behar dugu!

ABENDUAREN 2an LAUDIORA, MILAKA AHO ETA BELARRI BIZI ETA PREST!

Azken urteotan bezala, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua osatzen dugun 41 erakundeek Euskararen Nazioarteko Eguna eta Euskaraldia dinamikaren amaiera elkarrekin ospatu eta aldarrikatzeko deialdia egiten dizute. Milaka izango gara abenduaren 2an Laudion prestatu dugun jaialdian topo egingo dugun ahobizi eta belarriprestak! "Aiaraldea euskalduna" nahi dugula lau haizeetara aldarrikatzeko egun ederra izango da!

Egun osoko egitarau oparoa prestatu dugu horretarako; eskualdeko zutabeak, desioz betetako puxikak, ikuskizunak, dantzak, kantak, berbak, jolasak, animazioa, bazkaria, ipuinak, umorea, kontzertua, erromeria... Egun ederra izango da dudarik gabe; baina horretarako zuen parte hartzea ere ezinbestekoa da!

INOIZKO BAZKARI HERRIKOI HANDIENA EGIN NAHI DUGU!



Abenduaren 2an, Laudion, Ahobizi eta Belarripresten bazkari erraldoia antolatu dugu. Elkarrekin eseri, bazkaldu eta euskara izango dugu elikagai eta arnas! 5 euroren truke garaiko bazkari oparoaz gozatzeko aukera izango dugu (aukera beganoa ere egongo da). **Txartela alde aurretik erostea ezinbestekoa izango da, azaroaren 29a -osteguna- izango da horretarako azken eguna.** Eskualdeko 41 tokietan daude dagoeneko salgai txartelak; erosi itzazue zuenak amaitu baino lehen:

BAZKARIRAKO TXARTELAK HEMEN SALGAI:			
LAUDIO ZUBEROA TABERNA (LATORRO) GORBEA TABERNA (UGARTE) BERBOTS EUSKALTEGIA (AEK) UDAL EUSKALTEGIA ARRANOPE UDAL EUSKALTEGIA ILUNTZE KESKA ILARGI TOLO LAUDIO IKASTOLA	AMURRIO ZABALEKO IKASTETXEA LUKAS REY IKASTETXEA ARESKETA IKASTOLA VIRGEN NIÑA IKASTETXEA ZARAUBE INSTITUTUA ABEK KULTURA ETXEA BATZOKIA TXOKOGORRI GARRASTATXUKO TXOSNA	OROZKO INDUMA ITXINA ARRUGAETA DONDE SEGUNDO (OKINDEGIA) EZPELABARRI AIARA LUJONDOKO SOZIALA ANTOJO TABERNA	ARETA ESKOLA ARETAKO KULTURA-ETXEA JUBILATUEN EGOITZA URDUÑA HERRI ESKOLA ALONDEGIA AINTZINAKO ANDRA MARI IKASTETXEA-JOSEFINOAK OKONDO MESON TABERNA ESKOLA ARTZINIEGA OSTARGI TABERNA ESKOLA ARRANKUDIAGA ESKOLA GIZARTE-ETXEA EKILORE DENDA BATZOKIA

LAUDIORA JOATEKO HITZORDUAK

Azken bi urteotan bezala, 4 zutabe egingo ditugu Laudioko Herriko plazara iristeko. Haurrak, gazteak, helduak, zaharrak, musika, hankapaluak, puxikak, euskararekiko konpromisoak... kolorez beteko dugu Laudio abenduaren 2an. Herri bakoitzari zutabe bat izendatu diogu, hemen dituzue hitzorduak!

HERRIA	HITZORDUA	ZUTABEAREN HASIERA
ARANKUDIAGA-ZOLLO	10:24etako trena	11.00etan ZUTABEA ARETA ZUTABEA ARETAKO KULTUR-ETXEA
ARAKALDO	10:28etako trena	
OROZKO	10:15 Gorbeia kaleko parkinean, autoetan joateko	
Aretako herritarrak	10:45ean Kultura etxean	
OKONDO	10:15ean Kultura etxean, autoetan joateko	11.00etan ZUTABEA GOIENURI ZUTABEA UGARTEKO PLAZAN
ARTZINIEGA	10:15ean frontoian, autoetan joateko	
AIARA	10:30ean Etxaurren ikastolan, autoetan joateko	
Ugarteko herritarrak	10:45ean Ugarteko plazan	
AMURRIO	10:27etako trena	11.00etan ZUTABEA OLARTE ZUTABEA GARDEAKO TREN GELTOKIAN
URDUÑA	10:21etako trena	
Luiaondo	10:33etako trena	
Gardeako herritarrak	10:45 Gardeako tren geltokian	
LAUDIO (erdigunea eta beste auzoak)	10:45ean Latorroko zentroen plazan	11.00etan ZUTABEA LARRA ZUTABEA LATORROKO ZENTROEN PLAZAN
Latorroko herritarrak	10:45ean Latorroko zentroen plazan	

IKATETXEETAN EGINDAKO LANAK EKARRI LAUDIORA!

Jakin badakigu eskoletan ere asko landu duzuela Euskaraldia, horregatik animatu nahi zaituztegu bertan egindako lanak Laudiora ekartzera: marrazkiak, konpromisoak, muralak, eskulanak, eta batez ere euskararekiko maitasuna ekartzera! Kolorez eta etorkizunez beteko dugu Laudio abenduaren 2an.

Abenduaren 2an milaka ahobizi eta belarriprest Laudion topo egingo dugulakoan, jaso ezazue agur bero bat. **Aiaraldea ahobizi eta belarriprest! Aiaraldea euskaldun!**

